

## GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BURRUKA

(Nazio Batuen Elkargoaren 40gn. urtea)

### Aurkezpena

Aldizkari honetan, Euskal Herriaren eta, bereziki euskara gure hizkuntza nazionalaren egoera aztertzerakoan, behin eta berriro aipatu izan ditugu «Giza-eskubideak».

Izan ere, zenbait urrats ematerakoan edo eta eskariak egite-rakoan, gure arazoien nondik norakoak ezagutzeak argi bizia eskaini izaten digu eritziak sendotzeko zein bizitzari sakonagotik eusteko.

Bestalde, direla egun gutxi, Ameriketako Estatu Batuetan bildu izan dira munduko estatu gehinetako buruzagiak, Nazio Batuen Elkargoaren berrogeigarren urtea ospatzea zela eta.

Harritzekoa baldin bada ere, han mintzatu ziren buruzagi guztiek ahalegindu ziren Giza-Eskubideen alde luzaroan mintzatzan. Mundu baketsu eta anatsu batetan bizi garela zirudien.

Eta biren bitartean hor ditugu bazter guztietan arma-hotsak, zapalkuntzak, arrazakeriak, eskubide faltak, espetxeak gainezka, milaka pertsona goserik hiltzen eta bestelako Giza-Eskubide horien aurkako egintza negargarriak.

Gezurrez eta azpikeriz beteriko mundu batetan bizi gareala

dirudi. Helburu nagusi, gainera, ez dugu gizona bera, herri ba-koitzaren handikeria baino. Gizonen bizileku izan beharko lu-keen mundu hau, gizonaren burruka-leku bihurtu dugula diru-  
di.

Ahoz gauza bat egiaztatu eta egitez bestelakoaei jarraitzea dugu gure politikari eta estatuetako buruzagien eguneroko le-  
loa. Gizakia interes ekonomikoen zerbitzuan erabilia agiri zaigu. Ez da harritzeko, beraz, mundu zabalean zehar ainbeste gatazka, istilu eta burruka sortzea.

Nazio Batuen Elkargoa, estatuen arteko gatazka eta ikusic-  
zinak leuntzeko eta kentzeko sortua omen da. Batzuk diotenez, gainera, hainbat gudu eta burruka baztertu omen ditu berrogei urte luze horietan. Hala ere, oraindik, ezer gutxi lortu duela ai-  
tortu behar, gure mundua inoiz baino zatituago eta arrisku han-  
diago batetan aurkitzen da eta.

Gizonok, azken urteotan, aurrerabide izugarriak ezagutu izan ditugu teknika alorrean eta, hala ta guztiz ere, geure norke-  
riaren erruz inoiz baino gose eta mixeria gehiago agiri zaigu he-  
rri atzeratueran. Eta ez, elikadura edo jateko faltaz, nork banan-  
du eta emon ez dagoelako baino. Armak egiterakoan, ostera, se-  
kulako dirutzak erabiltzen dira bazterretan.

Ez ote da *nahikoa da* esateko garaia? Giza-eskubideak (estatu gehienak ontzat hartu eta ahoz behintzat harrokeriaz defendatu-  
riko eskubideak) beteerazteak exigitzeko unea? Izango ote dugu benetako bakerik eskubide horiek alde utzirik? Izen ete daiteke gizona zoriontsu eskubide horiek betetzen ez diren artean?

Kristauon artean bizitzako norabide eta argi gisa hamar Aginduak hartzen ditugun bezala gizarteak ere Giza-eskubideak hartu beharko lituzke. Ez litzateke bide txarra kabebideak egi-  
nez joateko!

Baina, horrek Eskubide horiek ezagutu eta arretaz haus-  
nartzea eskatzen digu. Sarritan atseginago izaten baitugu, kon-  
promisurik sortzen duenik ez ezagutzea, hala geure norkeriaren

pozetan guztora jarraitzeko.

Halakorik gerta ez dakigun, gure aldizkari honetan tokia egin nahi izan diogu *Giza Eskubideen Unibertsal Deklarazioari*. Batzuei harrigarri gertatuko zaizkizue behar bada, inoiz irakurri ez dituzuelako; beste batzuk hausnarketa egiteko lagungarri izango dituzue, gure bideak nondik zehar joan beharko luketen argiago ikusteko. Guztiontzat izango ditugu argi eta bultzada, geure norbera baztertzen saiatu eta bakebideak egiten iharduteko.

### **Oharkizunak**

Giza-eskubideak plazaratu eta aztertzerakoan zenbait puntu izan behar ditugu kontutan:

a) Eskubide guztiek ez daukatela balio berdina. Batzu ezinbestekoak dira gizakiari dagokionez bizitzeko eta, alde horretatik begiraturik, beste eskubide guztien oinarri eta euskarri bihurtzen zaizkigun. Beraz, besteek baino garrantzi handiago dute, gizakiari dagokion gisa bizi behar baita bestelako eskubide gehigarriak edukiaurretik.

b) Eskubide batzu indibidualak eta inorenganatu ezinak dira, hau da, edozein pertsonari eta edonon dagozkionak: bizitzeko, jateko, askea izateko, eta halako eskubideak. Hauek ezinbestekoak dira.

c) Beste eskubide batzu, taldea osotzen duten elkartearenak dira: herriaren askatasuna lortzeko eskubidea; era batetako edo bestetako gobernu mota aukeratzekoa eta abar... Hauek esdabai-dagarriagoak, behar bada.

Dena dela, eskubideok era batekoak zein bestekoak izan, muga bakar bat daukate *inoren eskubiderik ez zapaltzea*.

Guzti hau aurrean duzula ekin heurok aztertzeari argirik ugari eta bide berri ederrik ugari aurkituko duzu eta.

## Giza Eskubideen Unibertsal Deklarazioa

1.- Gizaki oro dignitate eta eskubideetan libre eta berdin jaiotzen da, eta, arrazoinez eta kontzientziaz horniturik dagoenez, elkarrekiko anaitsuki ihardun behar du.

2.- 1) Pertsona orok Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasun guztiak ditu, inolako diñtintziorik gabe, ez arraza, kolore, sexu, hizkera, erlijio, politik edo bestelako iritzi, nazional edo sozial etorki, ekonomik posizio, jaiotze, edo beste edozein kondizioagatik.

2.- 2) Gainera, ez da inolako bereizketarik eginen, pertsona jurisdikziopean duen herriaren edo lurraldearen politik, judizial edo nazioarteko kondizioagatik, nahiz herria independente izan nahiz judizial administraziopean dagoen lurralde, ez autonomo edo bere burujabetzaren edonolako mugaketetara menperaturiko herria izan.

3.- Pertsona orok du askatasunerako eta bere pertsonarekiko seguritatearako eskubidea.

4.- Inor ez menpekotasunera ez morrointasunera behartuko: morrointasuna eta morroin tratu mota guztiak debekatuak daude.

5.- Inor es da torturetara sometituko ez eta tratu krudel, gizagabetsu edo degradantetara.

6.- Gizaki orok du, nonnahi, beraren pertsonalitate juridikoaren aitorketarako eskubidea.

7.- Denak dira berdin lege aurrean eta dute bereizketarik gabe legearen protekzio berdinerako eskubidea. Denek dute Deklarazio hau hausten duten diskriminaketa guztien kontrako protekzio berdinerako eskubidea; halaber, diskriminaketarako eragitearen aurkakorakoa.

8.- Pertsona orok du errekurso efektiborako eskubidea, nazional hauzitegi egokien aurrean, hauek konstituzioak edo legeek aitorturiko funtsezko eskubideak bortxatzen dituzten ekintzen aurka pertsona babesten dutelarik.

9.- Inor ez da arbitrarioki atxilotua, espetxeratua edo desherriratua izanen.

10.- Pertsona orok du, berdintasun osoko baldintzapean, hauzitegi independente eta inpartzial batetan, publikoki eta zuzentasunez bere boza entzunerazteko eskubidea, beraren eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, edo penal arloan beraren kontrako edozein salaketa aztertzeke.

11.- 1) Delitoz salaturiko pertsona orok du beraren inozentziatz sinesteko eskubidea, bere errua frogatzen ez deino, legegari jarraikiz bere defentsarako premiazko garantia denak ziurtatzen zaizkion judizio publiko batetan.

2) Inor ez da zihortua izanen, egiteko unean nazional edo nazioarteko zuzenaz zihorgarri ez ziren ekintza edo ezeginagatik. Etzaio ezarriko ere, delittoa egiteko garaian ezar ziezaiokenea baino zigor astunagorik.

12.- Inor ez da, ez bizitza pribatuan, bere familian, bizitokian edota korrespondentzian eskusartze arbitrarioen objektu izanen, ez eta beraren ondra eta uste onaren aurkako erasoen objektu. Pertsona orok du aipatu eskusartze edo erasoen aurkako lege protekziorako eskubidea.

13.- 1) Pertsona orok du libreki mugitzeko eskubidea, eta Estatu batetako lurraldean bizitokia aukeratzeko.

2) Pertsona orok du edozein herritatik, baita berarenatik ere, irtetzeko eskubidea eta bere herrira itzultzekoa.

14.- 1) Pertsekuzioa dela eta, pertsona orok du asiloa bilatzeko eskubidea, eta edozein herritan asilo berau gozatzeko.

2) Eskubide hau ezin eskatua izanen da, delito arruntek edo Nazio Batuen helburu eta printzipioen kontrako ekintzek errealki sorterazitako judizial ekintzaren aurka.

15.- 1) Pertsona orok du nazionalitate baterako eskubidea.

2) Etzaio inori nolanahe bere nazionalitatea ukatuko, ez eta nazionalitatez aldatzeko eskubidea.

16.- 1) Gizaseme eta emakumezkoek, gaztetxoarotik aurre-

ra, ezkontzeko eta sendi bat eratzeko eskubidea dute, arraza, nazionalitate edo erlijio zioengatikako inolako murrizterik gabe; eta ezkontzari dagokionez, ezkubide berdinak gozatuko dituzte, bai ezkontzak dirauenean, bai ezkontza desegin eta gero.

2) Soil soilik geroko ezkonduakoen baiezen libre eta osoaren bidez, ospa daiteke ezkontza.

3) Sendia, gizartearen natural eta oinarrizko elementua da, eta gizarte eta Estatuaren protekziorako eskubidea du.

17.- 1) Pertsona orok du jabetzerako eskubidea, dela bakarka edo kolektiboki.

2) Inor ez da bere jabetzaz desnagusitua izanen.

18.- Pertsona orok du, pentsamolde, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea; eskubide honek baitan hartzen du, bai erlijioz edo sinismenez aldatzeko eskubidea, bai erlijio edo sinismen horiek, bakarka edo kolektiboki adierazteko eskubidea, hala jendaurrean, nola pribatuki, irakaskuntza, praktika, kulto eta betetzearen bidez.

19.- Gizaki orok du iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubidea; eskubide honen baitan dago, iritziengatik oztoporik ez pairatzekoa, informazio eta berriak ikertu eta jasotzekoa eta edozein espresabidez, mugarik gabe zabaltzekoa.

20.- 1) Pertsona orok du biltze eta elkartze baketsu askatasunerako eskubidea.

2) Ez daiteke inor elkarte batetan kideztzera behartu.

21.- 1) Pertsona orok du bere herriko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenki edo libreki hautaturiko ordezkarien bidez.

2) Pertsona orok du, berdintasun baldintzapean, bere herriko funtzio publikoetan sarbiderako ordezkarien bidez.

3) Herri borondatea da botere publikoaren oinharri; borondate hau, periodikoki, sufrajio unibertsal eta berdinez, eta ezkutuko bozaz, edo bozaren askatasuna garatiza lezaken beste antzeko prozedimendu bidez, ospatuko zinezko hautezkundetan adieraziko da.

22.- Pertsona orok, gizarteko kide denez, giza seguritateko eskubidea du; eta nazional eginahalaz eta nazioarteko elkarlanean, Estatu bakoitzeko antolaketa eta errekurtsoak kontutan harturik, bere nortasunaren dignitate eta hazkunde librerako derrigorrezko diren ekonomik, sozial, eta kultural eskubideen aietasuna lortzeko eskubidea du.

23.- 1) Pertsona orok du lanerako, bere lanaren aukeratze librerako, lan kondizio berdintsu eta aietarako, eta desenplegu kontrako protekziarako eskubidea.

2) Pertsona orok du, inolako diskriminaketarik gabe, lan berdina truke, soldata berdinerako eskubidea.

3) Lanean dihardun pertsona orok du, ordaina berdina eta eixerako eskubidea, zeinak, bai berorri, bai bere familiari giza dignitateari dagokion asistentzia garantizatuko dionak; eta, beharrez gero, beste edonolako sozial protekzioz osotua izanen delarik.

4) Pertsona orok du, sindikatoak eratzeko, eta bere interesen defentsan sindikatzeo eskubidea.

24.- Pertsona orok du, atsedenerako, beta librea gozatzeko, lan iraupenaren arrazoizko mugaketarako eta ordaindutako oporraldi periodikotarako eskubidea.

25.- 1) Pertsona orok du bizi maila eroso baterako eskubidea, ba berari eta bere sendiari, osasuna eta erosotasuna, eta bereziki eliketa, jatzera, bizitokia, senda asistentzia eta sozial zerbitzu beharrezkoak segurtatuak dituelarik; halaber, desenplegu dela ta, edo gaixotasun, elbarritasun, alarguntasun, zahartzaro edo, bere borondatetik kanpoko gorabeherak sortutako bizibide galtzea dela eta, segurtasunerako eskubidea du.

2) Maternitateak eta hartzaroak, zaintasun eta asistentzia berezitarako eskubidea dute. Haur guztiek, ezkontz barrenean nahiz ezkontzatik at sortuak izan, giza protekzio berdinerako eskubidea dute.

26.- 1) Pertsona orok du hezkuntzerako eskubidea. Hezkuntzak dohanezkoa behar du izan elemental eta funtsezko ira-

kasketari dagokionez bederen. Oinarrizko irakasketa derrigorrezkoa izanen da. Teknik eta profesional ikasketa, guztiei zabaldua egonen da; goimailako ikasketetarako sarbidea denentzat berdin izanen da, norberaren merezimenduen funtziotan.

2) Hezkuntzak, giza nortasunaren eta giza eskubide eta funtsezko libertateekiko errespetoaren hazkunde osoa du helburutzat; elkar ulertzea, tolerantzia, eta teknik eta erlijios taldeen arteko adiskidetasuna bultzatuko du; eta bakea mantentzeko Nazio Batuen ekintzen hazkūndea bultzatuko du.

3) Gurasoek ukanen dute lehentasuna seme-alabei emanen zaien edukazio mota aukeratzekoan.

27.- 1) Pertsona orok du libreki komunitatearen kultur biziaren parte hartzeko eskubidea, arteaz gozatzeko eta zientifik aurrerakuntzan, eta honen ondorengo ondasunetan parte hartzeko.

2) Pertsona orok du, zientifik, literario edo artistik produkzioen egile izategatik dagozkion moral eta material interesen protekzioarako eskubidea.

28.- Pertsona orok du, Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, zinez eta osoki efektibo eginen diren sozial eta nazioarteko egitura ezer dadin eskubidea.

29.- 1) Pertsona orok betebeharrak ditu komunitateariki, zeren bertan soilik hazi lezake libreki eta osoki bere nortasuna.

2) Eskubideen erabilkeran eta askatasunen gozatzean, pertsona oro, legeak ezarritako mugaketei lotua egonen da, soil soilik besteen eskubide eta askatasuna aitorketa eta errespetoa segurtatzeko, eta gizarte demokratiko batetan morala, publik ordena eta erosotasun nagusiaren esijentzia zuzenak beteak izan daitezzen.

3) Eskubide eta askatasun hauek ez daitezke, inolaz ere, Nazio Batuen helburu eta printzipioei kontrajarriak erabili.

30.- Deklarazio honetako ezer ez da ulertuko inori, ez Estatuari, ez talde edo pertsona bati, Deklarazio honetan adierazi-



tako eskubide eta askatasunen kontrako ekintzak hasteko edo bultzatzeko eskubidea ematen zaiolaren zentzutan.

(Euskarako testua: *Punto y Hora* aldizkarian argitaratua da).

### **Oharra**

Giza-Eskubideok, zenbait herritan hitzez onartuak izan badira ere, praktikan, eguneroko giza-harremanetan zeharo bazterturik agertzen diren una honetan, kriatauok heuron defendatzaile sutsu agertu beharra dugu, bertan Ebanjelioak hain argi eta garbi irakasten digun egi nagusia aldarrikatzen zaigu eta, hots, *guztiok Jainkoak berdintasunean bere inudiko eginak izan eta askatasunean eta elkarmaitasunean, munduko ondasun guztiak denon onerako erabiliz, bizitzeko sortuak izan ginela.*

Kristauok, beraz, Jesusen Mendiko ZORIONBIDEAK geure egin eta elkarren arteko nebarrebatasuna aitortzen baldin badugu, hori benetan munduan nagusitu dadin arte, jo eta ke, eten gabe burukatu beharko dugu Giza-Eskubide guztion defendatzaile porrokatu edonon agertuz.

*Patxi Uribarren*